

JARDUNALDI TEKNIKOA



KRISTAL-SILIZEAREKIKO ESPOSIZIOA HARRI MEKANIZAZIOKO OPERAZIOETAN

2019

ESPERIENTZIAK ETA ERRONKAK



Azken hamarkadan, gorakada egon da kristal-silizearekiko esposizioari lotutako gaixotasunen diagnostikoan. Arazoa manufakturatutako material berriak –silize konpaktu edo aglomeratuak, adibidez– maneiatzen zituzten langileetan hauteman zen. Izan ere, horien izaera eta osaera ezberdina da material naturalen aldean. Dena den, arnastu daitekeen kristal-silizearekiko esposizioa industria jarduera ugaritan gerta daiteke, hala nola, harri natural edo artifizialeko tailerretan, fundizioetan, eraikuntzan, zeramikan, beiran, etab.

Arnastu daitekeen kristal-silizearen hautsa birika-albeoetan sar daiteke, eta horrek atzeraezinak eta hilgarriak izan daitezkeen kalteak sor ditzake osasunean. Horregatik sartu zen 2018ko maiatzaren Gaixotasun Profesionaleko Koadroaren barruan biriketako minbizia sor dezakeen substantzia gisa, beste taldeetan sartuta ez dauden substantziak eta eragileak arnasteak sortutako beste gaixotasunen taldean egoteaz gain (silikosisa sortzen duena).

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko 2017/2398 Zuzentarauaren (EB) eraginez, –zeinak aldatu zuen langileak lanean eragile kartzinogeno eta mutagenoen eraginpean jartzearekin zerikusia duten arriskuen aurrean babesteari buruzko 2004/37/EB Zuzentaraua– langileak minbizia sor dezaketen eragileen aurreko esposizioarekin lotutako lan-arriskuen aurka babesteari buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretua aldatu behar izan zen. Hala, substantzien, nahasketen eta prozeduren zerrendan sartu ziren lana egin bitartean arnastu daitekeen kristal-silize hautsarekiko esposizioa dakarten lanak, eta, III. eranskinean, esposizio profesionalari dagokion gehieneko balioa adierazi zen.

Jardunaldi honetan OSALANek eta INSSTk azken urteetan Euskadiko marmoldegietan arnastu daitekeen kristal-silizearekiko esposizioari buruz egin dituzten ikerketen emaitzak aurkeztuko dira. Lortutako ezagutza, prebentzio zerbitzuek eskaintzen duten esperientzia praktikoa barne, aplikatu daiteke kristal-silizea lehengai gisa erabiltzen den beste jarduera batzuetan edota materialak maneiatzean sor daitezkeen beste lan batzuetan ere. Era berean, duela gutxi minbizia sor dezakeen eragile gisa klasifikatu izanak eta horrek esan nahi duen guztiak prebentzio erronka garrantzitsua dakar, nola ezarri beharreko neurri teknikoaren alorrean hala esposizioan dauden langileen osasunaren zaintzaren alorrean.

Bilbao, 2019ko maiatzaren 31

Instituto Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo (INSST), O.A., M.P.
Makineria Egiaztapenerako Ikertegi Nazionala

Lekua: Juan de Larrea Aretoa. Kale Nagusia 50
Google Maps-en bidezko kokapena

PROGRAMA

- 09:00 Dokumentazioa jasotzea
- 09:15 **Jardunaldi Teknikoaren aurkezpena**
José Ramón Martín Usabiaga jauna
Makineria Egiatzapenerako Ikertegi Nazionala (CNVM), INSST
- 09:30 **Administrazio publikoak harri natural eta artifizialaren sektorean egindako jardunak**
Javier Krutxaga Nieto jauna eta Begoña Lekue Gotxikoa andrea
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (OSALAN)
- 10:00 **Kuartzo aglomeratuak eta material berriak**
Luz María Marcos Rico andrea
Makineria Egiatzapenerako Ikertegi Nazionala (CNVM), INSST
- 10:30 **Arnastu daitekeen kristal-silizearen ingurumen neurketak Euskadiko marmoldegietan**
Natividad Montes Beneitez andrea
Makineria Egiatzapenerako Ikertegi Nazionala (CNVM), INSST
- 11:00 **Atsedena**
- 11:30 **Prebentzio neurriak eta kristal-silizea minbizia sor dezakeen elementu gisa klasifikatzearekin lotutako ondorioak**
María Nieves de la Peña Loroño andrea
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (OSALAN)
- 12:00 **Harriaren mozte, lantze eta akabera lanekin lotutako arazoak. Esperientzia praktikoak**
Alfonso Carlos Martín Casado jauna
Quirónprevención, S.L.U.
- 12:30 **Osasuna zaintzea, harri natural eta artifizialeko sektoreko langileetan**
Charo Alfageme Mediavilla andrea
Mutualiako PSko lan-medikua. Lan Medikuntzaren Euskal Elkarte
- 13:00 **Mahai-ingurua**
Moderatzailea: José María Rojo Aparicio jauna
Makineria Egiatzapenerako Ikertegi Nazionala (CNVM), INSST
- 13:30 **Jardunaldi Teknikoaren amaiera**
Alberto Alonso Martín jauna
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko (OSALAN) Zuzendaria

IZEN-EMATE ESKAERA

DATU PERTSONALAK

Izen eta Abizenak* _____

NAN* _____ Telefonoa* _____

Posta elektronikoa* _____

Helbidea* _____

Herria* _____ Posta-kodea* _____

ENPRESAREN DATUAK

Izena _____ Telefonoa _____

ESKAERAREN BIDALKETAREKIN BATERA JARDUNALDIAN IZENA EMANDA DAGO

* Derrigorrezko datuak

* Lege Organikoaren 3/2018 araudian xedatutakoa betetze aldera, jakinarazten zaizu zuk inprimaki honetan emadako datu pertsonalek eskatutako jardueran erregistroa kudeatzea, dagokion diploma edo bertaratutako ziurtagiria kudeatzea, eta egin dezakezun informazio eskaerei erantzutea dutela helburu. Datuak eskatutako zerbitzua behar bezala kudeatzeko eta hornitzeko beharrezko denborarako mantenduko dira. Datuak ez zaizkie hirugarrenei emango, betiere legeak ezarritako betebeharrak ez badago. INSST-ri zure datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko edo tratamenduarekiko aurkaritza adierazteko eskubidea duzu. Zure datu pertsonalen tratamenduarekin lotutako erreklamazioa egiteko eskubidea Datuak Babesteko Espainako Agentziaren aurrean. Pribatasun politika.

NIPO (en línea): en trámite
NIPO (papel): en trámite
DL: M-18283-2019



#JTKristalSilizearekikoExposizioa